

Onddoa:
gutizia
desiratua



Perretxikoak biltzearen
inguruan solasean ▶ 7

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Osteguna ▶ 2006-10-19 ▶ IV. urtea ▶ 991. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Euskal Kirolaren III. Eguna egingo dute igandean Usabalen

TOLOSA ▶ «Kirol eta jai jardunaldi parte-hartzaile eta herrikoia izango da», antolatzaileen arabera

BERRIKUNTZA ▶ Euskadi eta Kataluniako beteranoen selekzioen arteko saskibalo partida ▶ 3



Aizkolari onenen arteko finala igandean Tolosan

TOLOSA ▶ Igandean izango da Tolosako Zezen Plazan Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkolarien Txapelketako final handia, 12:00etatik aurrera. Atzo egin zuten aurkezpena, eta bertan izan ziren Larrebea, Olasagasti, Txapartegi eta Azurmendi aizkolaria txapelketako antolatzaileekin batera. Nazabal ere finalerako sailkatu zen,

baina ez parte hartzea erabaki zuen, eta azkenean ez da bere ordezkorik izango. Bestalde, berrikuntza batekin dator Aizkolari Txapelketako finala, izan ere, antolatzaileetako batek aizkolari bakoitzak emango dituen kolpe guztiak kontatuko ditu, pilota partidetan egin ohi duten bezala. ESTI EZEIZA ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Baserriko produktuak eta artisautza igande honetan, Bederatzigarren Azoka Berezian

Guztira, 37 postu izango dira Zizurkil Goian, goiz eta arratsalde ▶ 4

IBARRA ▶

Elkartasun Eguna, iheslari eta preso en alde

Hilaren 28an antolatu dute ekitaldi ugariarekin ▶ 6

TOLOSALDEA ▶



HITZA

Derbiak etxeko pilota taldeen artean

Aurrera-Saiaz eta Zazpi-lturrikoak ▶ 5

TOLOSA ▶

Gurasoen topaketak antolatu dituzte

Gurasoen kezkei aurre egitea izango dute helburu nagusia ▶ 2

KIROLAK ▶

Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkolarien finala igandean

Aurten, lehenengo aldiz, aizkolarari bakoitzak emanen dituen kolpeak kontatzeko pertsona bat jarriko dute bereziki



Larretxea, Olasagasti, Txapartegi eta Azurmendi aizkolaria antolatzaileekin batera, atzo. E. EZEIZA

NAIARA GARZIA

Euskal Herriko Lehenengo Mailako Aizkolarien Txapelketaren aurkezpena egin zuten atzo Tolosako udaletxean. Bertan Galder Ajuriak, Gipuzkoako Federazioko teknikariak eta Eduardo Arrizabalak, Aizkolarien Zuzendari Batzordeko kideak, igandean Tolosako Zezen Plazan jokatu den finalaren inguruan hainbat datu eman zituzten.

Donostian egin zuten kanporaketa irailaren 2an eta 12 aizkolariren artekoa izan zen: Nazabal, Olasagasti, Larretxea, Peñagarikano, Azurmendi, Barberena, Mugerza, Txapartegi, Antonio Senosiain, Erdozia, Etxebeste eta Aitor Senosiain. Hauetatik 6 klasifikatu baziren

ere, Nazabalek txapelketan ez parte hartzea erabaki du, bizkarreko hernia bat dela medio. Beraz, Barberenak, Txapartegik, Olasagastik, Azurmendik eta Larretxeak jokatu dute finala. Peñagarikano Nazabalen ordezkoa egitera ukatu denez, 5 izango dira parte hartuko duten aizkolaria. Aurten, beraz, txapelketa Gipuzkoan jokatu da, urtero lekua aldatzen baitu. Tolosak aizkorarako «beti izan duen erakrpen horri etekina ateratzeko aukera paregabea» izanen da, beraz. Horretaz gain, aire librean aizkorak beste xarma bat izaten duela azpimarratu zuen Arrizabalagak. «Horrexegatik aukeratu genuen Tolosako Zezen Plaza».

Egurra Iratitit ekarriko dute eta jaialdiari dagokionez, alda-

ketak batzuk eginen dituzte; jendea esertzeko kokagunea berezi xamarra izanen da eta gainera kazetarientzat ere gune bat jarriko dute. Berrikuntza nagusia ondorengoa izanen da: pertsona batek aizkolarari bakoitzak ematen dituen kolpe guztiak kontatuko ditu, pilota partidetan gertatu ohi den bezala.

Igandean, 11:00etan lehiatutako irekiko dituzte (sarrerak 20 eurotan) eta 12:00etan hasiko da jaialdia aizkolarien aurkezpenarekin. Amaitu ondoren izango da sari banaketa.

Plazara hurbildu ahal ezingo diren aizkora-zaleek ezingo dute jaialdia etxetik jarraitu. Federazioa ez da ETBrekin akordio batera iritsi eta ez dute telebistatik botako.

IKASTAROA ▶

Gurasoen topaketan izen emateko deialdia

Gurasoen kezkei aurre egiteko seme-alaben hezkuntza izango da ikasgai maiatzera arte

N. GARZIA

Tolosako Udaletxeko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak gurasoentzako topaketak antolatu ditu negu honetarako. Bertan 0-16 bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek hartu ahaliko dute parte, eta umeak heztekotrebetasunak lantzeko eta hausnarketa egiteko interesa duen edonork.

Gaur egun seme-alabek izaten dituzten erasoak ekiditen saiatzeko, edo edozein kasutan, hauek hobeto ulertzeko asmoarekin antolatu dute ikastaroa. Ikuspuntu erabat pedagogikoa izanen du eta ondorengo gai hauek landuko dituzte: familia sistema, bizitza zikloak, heziketa estiloak, osasun-heziketa eta drogo-menpekotasunen prebentzioa, garapen psikologikoa, heziketa sexu-afektiboa, komunikazioa, balore-heziketa, eskolaratzea, autoestima, arauak eta mugak, beldurren kudeaketa... Parte-hartzaileen

zalantzek ere bere lekua izanen dute; teoriatik praktikotasunera pasatzea izanen da ikastaro honen helburua.

Azaroaren 9an hasiko da ikastaroa haur liburutegian (Errotan), eta ostegunero egingen da maiatzak 17ra arte, 15:00etatik 16:45etara. Bi talde osatuko dituzte, bat euskaraz, bestea gaztelaniaz. Gizartean gai honen inguruan dagoen ardurua handia denez, erraztasunak jarri dituzte ahalik eta jende gehienak parte har dezan. Honela, haurtzaindegia erabiltzeko aukera ere izanen da, garaiz izena emanez gero. Plazak mugatuak dira eta Tolosan bizi diren gurasoek lehentasuna izanen dute. Matrikulatzeko 6 euro ordaindu beharko dira. Izen eman nahi duenak Tolosako Udaletxeko Osasun eta Gizarte Zerbitzutik pasa (Plaza Zaharra, 6) edo zenbaki honetara deitu: 943 69 74 60. Azaroaren 4an amaituko da matrikulatzeko epea.

IKASTAROA ▶

Amarotzen dantza ikastaroa gaurtik aurrera

Amarozko Dantza Taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua betiko dantza ikastea edota moldatzea da, edozein erromeria edo dantzalditan praktikatu ahal izateko. Astean ordubeteko saioa izanen da, ostegun iluntzetan, 20:30ean, auzoko elkarteak lokaletan. Gaur izango da lehendabiziko eguna.

LAPURRETA ▶

Betaurreko ugari lapurtu dituzte optika batean

Herenegun goizaldean lapurreta egin zuten Triangulo plazako Argizti Optikan. Lapurrak, lehioko barrak zerratzten saiatu ziren aurrera; sarrerako atea ere bortxatu zuten, baina azkenean erakusleihoko kristala kenduta sartu ziren barrura. Betaurreko ugari lapurtu zituztenez, biharamunean denda itxi egin zuten.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KULTURA ▶

29.000 ikusle izan ditu jada 'Kutsidazu bidea Ixabel'ek

ERREDAKZIOA

Irailaren 28an Donostiako Zinemaldiaren barruan estreinatu zen *Kutsidazu bidea Ixabel*. Eta bi egun beranduago Tolosako Leidor atzokian aurkeztu zuten. Orduetik, 29.000 lagun inguruk ikusi dute euskal filma.

Gipuzkoako hainbat zinema aretotan eta Gasteizen estrenatu dute Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek zuzendutako lana. Astebete beranduago berriz, Bizkaia eta Nafarroan aurkeztu zuten. Herriak eta hiriak begiratuta, Donostia izan da bi aste hauetan ikusle gehien bildu dituen lekua. 5.375 ikusle hurbildu baitira euskarazko filma ikusteko Gipuzkoako hiriburura. Tolosan berriz, 2.800 lagun joan dira hau ikustera.

TELEFONOAK ▶
**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroazko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLA ▶

Euskal Kirolaren III. Eguna izango da igandean Usabalen

Berrikuntza gisa, Euskadiko eta Kataluniako beterenen selekzioen arteko saskibaloia partida jokatuko dute etzi



Fernando Asenjo, Andoni Imaz, Iñaki Ugarteburu eta Jose Mari Rojo, atzoko aurkezpenean. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Euskal Kirol Federazioen Batasunak antolatuta, igande honetan, hilak 22, Euskal Kirolaren hirugarren Eguna ospatuko da Tolosan, Usabal kiroldegian. Hala, atzo aurkeztu zuten ekitaldia Iñaki Ugarteburu, Kirolateko zuzendari Nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundian; Andoni Imaz, Tolosako Udaleko Kirol Zinegotziak; Jose Mari Rojo Euskal Saskibaloia Federazio Ordezkariek eta Fernando Asenjo, Euskal Kirol Federazioen Batasuneko Lehendakariak.

Antolatzaileen esanetan, «Kirol eta jai jardunaldi parte-hartzaile eta herriko honetako kirola gizarteratu nahi du, eta aldi berean, federatutako euskal kirolari merezi duen aitopena egin». Festa honetako, euskal kirol ezberdinen ezagutza eta hastapena sustatu nahi du, baita Euskal Federazio ezberdinen nahiz Euskal Kirol Federazioen Batasunaren inguruan Euskal kirolaren ordezkaritza indartu ere. Honez gain, Euskal Kirol Egunaren beste helburu handietako bat, «Euskal Selek-

zioetako nazioarteko eremuari dagokion bere kirol modalitate ezberdinen ordezkaritza ofizial baten aldarrikapena indartzea da». Ugartebururen hitzetan, «Euskal Selekzioaren aldeko apostua zintzoa da, eta hori erakusteko modu bat hau da, hemen egotea». Bestalde, aste honetan, Jarduera fisiko, kirola eta osasunari buruzko Nazioarteko Kongresua ospatuko da gaurtik aurrera Usabalen, Kultur Etxean eta Leidorren. Horregatik, ekitaldi garrantzitsu hau ere kontuan hartu dute antolatzaileek, festez betetako asteburu a osatuz.

Hirugarren edizioa izango da aurtengoa, lehenengoa Bilbon egin zen, eta Ugarteburuk azaldu zuenez, «bigarrena Gipuzkoara ekartzeko saiatu baginen ere, ezin izan zen». Hala, Durangon ospatu zen Euskal Kirolaren Bigarren Eguna. Eta azkenik, hirugarrenean lortu dute probintziara ekartzea, Tolosako Usabal Kiroldegia izango delarik eskenatokia. Datoren urtean, laugarrena, Araban egiten saiatuko dira.

Andoni Imazek aurkezpenean agertu zuenez, urte bat bete

du Usabal Kiroldegia, eta udaletxeko kideak «harro» daude, horrelako ekitaldi bat jaso ahal izango duelako Tolosak.

Hirugarren aldiz ospatuko da jaialdi hau, eta dagoeneko, indarra hartu du, eta oinarri sendoa du. Euskal Kirol Federazioen Batasunak «jai moduan aurkeztu nahi du egun hau, eta zentzu hori eman. Hala, Euskal Herriko hainbat gazte bilduko dira asteburu honetan, ongi pasatzeko eta kirola egiteko asmoz, Usabal Kiroldegian.

Aurtengoaren berrikuntzak

Hirugarren edizio honetan, aldatuta gisa, atxikitako jardunaldi bat izango du, larunbatean, bi ekintza nagusirekin: Euskal Ligari dagokion gimnastika lehiaketa bat, eta beterenen saskibaloia topaketa, Euskadi eta Kataluniako selekzioen artean. Partida hau arratsaldeko zazpitan jokatuko da, han ari tuko dira, izen handiko jokalariek. Besteak beste: Betolaza, Davalillo, Mendiburu, Solozabal, Creus eta Epi.

EGITARAUA ▶
LARUNBATA

17:30etan. Euskal Ligari dagokion gimnasia lehiaketa.
19:00etan. Euskadi eta Kataluniako selekzioen arteko beterenen saskibaloia topaketa.

IGANDEA

Urpeko jarduerak. 13:30etik 14:30era. Material-laginerako Stand-a. Bideo emanaldia. Urpeko hockey partidua eta hegats igeriketaren erakusketa.

Xakea. 10:00etatik 12:00etara. Eskolako xake-torneoa.

Badminton. 10:00etatik 14:15era.

Eskubaloia. 10:00etatik 14:00etara. Atera eginiko doitasun-jaurtiketa, mini eskubaloia partiduak eta 10 pasetako jokoa.

Beisbol eta Sofbol. 11:00etatik 15:00etara.

Jarduera parte-hartzailea.
Boxeo. Goiz osoan. Boxeo olimpiakoaren borroka-saioak. Publikoarentzako praktikatzeko irekia.

Kirol Egokitua. Goiz osoan. Kirol egokituaren tailerra.

Esgrima. 11:00etatik 14:00etara. Euskadiko Kopa.

Futbola. Bonbonera.
Golf. 10:00etatik 15:00etara.

Joko mota ezberdinak.
Halterofilia. 10:30etik 13:30era. Euskadiko Txapelketa sub 17. Euskadiko selekzioaren emanaldia.

Herri kirolak. Goiz osoan. Iparraldeko jokoen saioa.
Hockey. 11:00etatik 13:00etara. Emanaldi eta jolasen gunea.

Judo. 10:00etatik 11:30era. Erakusketa saioa.

Karate. 13:00etatik 15:00etara. Haurren emanaldia. Proba teknikoak.

Mendia. Goiz osoan.

Igeriketa. 10:00etatik 12:00etara. Lehiaketak.

Pilota. 10:30etik 15:00etara. Pilota tailerrak.

Piraguismo. 12:00etatik 13:30era. Material eta bideo erakusketa. Kayak poloko emanaldia.

Errugbia. Goizean zehar, hastapenak, emanaldia eta lehiaketa.

Squash. Goizean zehar, hastapenak, emanaldia eta lehiaketa.

Surf. Goiz osoan. Pelikulen emanaldia. Haurrentzako surf taula.

Taekwondo. 11:30etik 13:00etara.

Arku-tiroa. 10:00etatik 15:00etara. Tiro egiteko stand-a eta tiro modalitateen erakusketa.

ZIZURKIL ▶ IX. AZOKA BEREZIA

«Baserriko produktuak eta artisauak dira oinarriak»

IX. Azoka Berezia antolatu dute Zizurkil Goian igande honetarako



Idoia Lazkano eta Marian Lazkano, kartela eskuan, San Millan eskolako baratzaren ondoan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Bederatzigarren ediziora iritsi da Zizurkilgo Azoka Berezia. Atzo egin zuten ekitaldiaren aurkezpena Marian Lazkano alkateak eta Idoia Lazkano Nekazaritzako zinegotziak. «Baserriko produktuak eta artisauak dira azokaren oinarriak», azaldu zuten. Igande honetan, hilaren 22an, egingo da Azoka Berezia, ohi bezala, Zizurkil Goian.

Guztira 37 postu izango dira, asko eskualdekoak eta besteak Gipuzkoako beste txokoetatik zein probintziaz haratagotik etorritakoak ere. Baserriko produktuak eta era guztietako

artisansa izango da erosi, bai goizez bai arratsalde. Artisansa frontoiaren barruan egongo dira eta janari postuak kanpoan jarriko dituzte. Aurten postu gehiago daude eta herrikoak bi gehiago izango dira. Idoia Lazkanok ere aurtengo bitxikeria nabarmendu zuen: «San Millan eskolakoek baratzak daukate martxan eta postu bat jarriko dute beraien produktuekin».

Udaleko ordezkariek eguraldiaren garrantzia azpimarratu zuten horrelako ekitaldiak arrakasta izateko. Jende dezentetortzea espero dute eta horretarako autobusa jarriko dute doan egun guztian zehar

Zizurkil Behetik. Papelera del Oriako enpresaren aurrealdean eta Zubiarretxotik igoko dira Zizurkilgo Goiko plazara. Autoek ez dute aukerarik izango gora igotzeko, leku falta dagoelako eta aitzakirik ez izateko jartzen du Udalak autobusa.

Saria eta beka

Azoka Berezian baita Zizurkilgo baserriko produktuen postu onenari saria emango diote. Garaikurra eta lau lagunentzako Abeletxe jatetxean afora jasoko ditu. Ekitaldia ere baliatuko da Zizurkilgo Barrena Beka —lehen Baserriko Argia Beka izena zuena— zeinek jasoko duen jakiteko. Bekadunak herriko baserrietako argazki zaharren bilduma egitea izango du betebeharra. Lau lagun aurkeztu dira, horietatik hiru zizurkildarrak.

Azoka beraz gain, beste ekitaldi batzuk antolatu dituzte. Horietatik nagusia Zimiteyuan egingo den paellada herrikoia. Txartelak salgai izango dira 10 eurotan. Hurrek ere izango dute zer egin. Goizean zehar rodomoia eta arku tiraketa izango dituzte eta arratsaldean poniak. Beste ekitaldia bertso jaialdi berezia izan-

DATUAK ▶

EGITARAUA

11:00-14:30 eta 16:00-19:30. Azoka Berezia zabalik.
11:00-14:00. Rokodromoia eta arku tiraketa udaletxearen aurrean 6 urte gorako haurrentzat.
13:00. Zizurkilgo Azoka Bereziko Sariaren banaketa eta Zizurkilgo Barrena Bekako bekadunaren izendapena.
13:00-15:00. Paellada erraldoia Zimiteyuan.
17:00. Haurrentzako poniak.
19:00. Bertso jaialdi berezia frontoian.

PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko postuak jarriko dituzte ondorengo baserrietan eta artisauak.

Baserriko produktuak.

- ▶ Lur-Lan (Zizurkil).
- ▶ Mahala (Leaburu).
- ▶ Artzaia (Zizurkil).
- ▶ Menditarte (Zizurkil).
- ▶ Ugarte baserria (Asteasu).
- ▶ Olatza baserria (Zizurkil).
- ▶ Iruña baserria (Zizurkil).
- ▶ Loidi baserria (Zizurkil).
- ▶ Artuxaenea (Zizurkil).
- ▶ Andrezketa (Zizurkil).
- ▶ Iñaki Zubeldia eta Peio Argia (Asteasu/Zizurkil).
- ▶ San Millan eskola (Zizurkil).

Artisauak.

- ▶ Ander Geresta: egur taila (Zizurkil).
- ▶ Isabel Azpiroz: koadroak (Zizurkil).
- ▶ Juani Alkorta: koadroak (Zizurkil).
- ▶ Jubilatutako elkarteak: eskulanak (Zizurkil).
- ▶ Karlos Irazu: egur taila (Larraul).
- ▶ Lurdes Salaberria: eskulanak (Zizurkil).
- ▶ Pabi Otegi: harria eta egurra (Zizurkil).
- ▶ Pili Ugartemendia: gurutze puntuko koadroak (Zizurkil).
- ▶ Tartalo: ehuna, diseinua eta serigrafia (Tolosa).

go da. Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Unai Iturrria eta Xabi Paia bertsoariak ariko dira frontoian egingo den saioan. Gai-jartzailea Unai Elizasu izango da.

Azoka Berezira joateko nahi-ko eskaintza eta erraztasun baidago. Igandean zerua nola esnatzen den ikustea besterik ez da falta.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Txolarre Irratiko berrikuntzen aurkezpena, etzi

Txolarre Irratiak 2006-2007 ikasturteko programazioaren aurkezpena egingo du etzi, Tolosako kultur etxean, 12:00etan. Programazioaz gain, dagoeneko martxan dagoen www.txolarre.org webgunearen berri emango dute eta baita aurki egingo dituzten irratikastaroei buruz. Hilaren 28an eta azaroaren 4an egingo dituzte ikastaroriek. Doan izango dira eta herritar guztientzako zabalik. Informazio gehiagorako 943 69 80 38 telefono zenbakira dei daiteke.

IKAZTEGIETA ▶

Digestioari buruzko hitzaldia, bihar liburategian

Ikaztegiako Udal Liburutegian Kutxak antolatutako hitzaldia egingo dute bihar, 17:00etan. Gaia *Digestio zoriontsuak edo digestio astunak* izango da. Ekitaldiaren helburua janariak digeritzeko prozesuan parte hartzen duten egiturak ezagutzera ematea, elikagaiak ondo aprobetxatzeko jarraibideak ulertu, eta sor litezkeen arazoak saihestuz, bizi-kalitate hobetu. Bertan garatuko diren gaiak honako hauek izango dira: dieta garbia, haitze-min kontrako dieta, gibelako eta behazuneko arazoak, nola tratatu gastroenteritisa eta behekoak hobeto libratzeko aholkuak, zuntz askoko dieta. Sarrera dohainik da.

VILLABONA ▶

Bidezko Merkataritzaren gaineko ekintzak

SETEM Hego Haizea GKEak hainbat ekintza antolatu ditu Villabonan Bidezko Merkataritzaren mezua biztanlegoan zabaltzeko asmoz. Batetik, *Kafe Ona Guztiontzat Ona* erakusketa dago Gurea Antzokian astelehenera arte 18:30etik 20:30ak arte eta 12:00etatik 14:00etara igandean. Honen bidez bisitariak Bidezko Merkataritza zer den ezagutzera ematen dute. Bestetik, Villabona eta inguruko hainbat herrietako LHko haurrak *Kafe Haurra* izeneko antzezlan ikusiko dute gaur eta bihar goizean.

Gorriti

liburudenda

Prensa eta aldizkariak

Belate pasealekua, 1 • Tolosa • Tel.: 943 67 60 53

ABALTZISKETA ▶ AGENDA 21

Bozuek diagnosiaren zirriborroa Kultur Etxean aurkeztuko du

Bihar izango da herri batzarra, eta nahi duenak hartu ahal izango du parte, ekarpenak eta ideiak emateaz gain

NEREA URBIZU

Abaltzisketako Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela-eta osatu den diagnostikoaren lehenengo zirriborroa aurkeztuko dute herriko Kultur Etxean. Horrez gain, herritar guztien artean antzeman diren hutsu-nee konponbideak bilatzen saiatuko dira. Bozue Udaltalde 21ek egingo duen denboraldiko lehenengo bilera izango da. Bihar, egingo dute, hain zuzen ere, herri batzarra Abaltzisketako udaletxean, 20:00etan hasita.

Diagnostiko horretan mota guztietako gaiak landu dituzte: biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia, ingurumena... eta datu objektiboak biltzeaz gain, elkarrikeria bidez lortutako herritarren iritzia ere kontuan hartu dira.

Diagnostikoa erabat irekia da eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu. Gainera, diagnostiko horretatik abiatuta, herrirako etorkizuneko plangintza definitu nahi denez, oso garrantzitsua dela herritar guztiek parte-hartzea adierazi dute.

Bilera aurretik diagnostikoa irakurri nahi duenak, irakurtzeko aukera izango du Abaltzisketako udaletxean bertan. Interneten ere zintzilikatuko dute, www.tolomendi.net web orrialdean.

Bileran herritar guztiek parte hartu ahal izango dute, eta horretara animatzen dituzte Udaletik. Era guztietako gaiak jorratuko dituen bilera izango da, eta han antzemandako ahulezia eta gabeziak kontuan hartuko dituzte herri plana osatzeko.

Amaia Aramendi, Bozue Udaltalde 21eko teknikariak esan duenez, «diagnostikoa Udalei datuak eskatuz eta Udaletatik gairikoei ere eskatuz egiten da». Bestalde, «herrietako eragileak edo kultur taldeetako buruekin hitz egiten dugu eta haien kezak, proposamenak eta ideiak jasotzen ditugu». Baina «garrantzitsua», dio teknikariak,



Txindokitik hartutako argazkia. Irudian Abaltzisketa. ARANTXA TOLOSA



Abaltzisketako udaletxeko ordezkariak bileran izango dira. O. ESKITXABEL

«bihar bilduko diren artean osatzen diren hiru taldeak dira, eta hauek gai ezberdinak jorratuko dituzte. Ondoren, denak berriz bildu eta azken emaitzak jasotzen ditugu».

Herri batzarrean Udaltalde ordezkariak izango dira, «proiektuaren bat aurkeztu edo aipatu behar bada, haiek egiteko», Amaia Aramendi bera egongo da, Paisaiak taldeko bi eta Tolomendiko ordezkariak barne.

Zortzi hilabete lanean

Beraz, Agenda 21, herritar aurrera eraman nahi diren ekintzak jasotzen dituen plana da, bi berezitasunekin: herritarren

arte adostutako ekintzak jasotzen ditu: horretarako bai diagnostikoan eta bai herri plana definitzerakoan ere herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Eta bestetik, orain bizi direntzat eta ondoren datozenentzat «herri txukun eta bizi bat lortzea» du helburuetako bat.

Otsaila aldera eratu zuten Bozue Udaltalde 21, eta hilabete hauetan zehar gutxienez «sei lagunekin hitz egin dugu, guk nahi genituzkenak baino gutxiago, baina horien proposamenak eta ekarpenak kontuan hartu dira, bihar joaten diren aurrean aurkeztu eta aztertuko».

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

Olio eta hondakin bilketa izango da bihar goizean

Etxeko traste zaharrak eta hondakin arriskutsuak ere jasoko dituzte

ERREDAKZIOA

Ostiralean hileroko bezala etxeko olio bilketa egingo dute Bidegoianen, Uliko Mankomunitateak eskainitako zerbitzuari esker.

Bilketa horrekin batera etxeko hondakin arriskutsuen bilketa (pinturak, barniak, kola edo itsasgarriak, di-

solbatzaileak, fluoreszenteak eta lanparak, aerosolak, autoetako bateriak, autoentzako erabilitako olioak, pila eta akumuladoreak, inprimagailuetako tinta-kartutxoak eta tonerak, sakelekoak, termometroak...). Material horien bilketarako furgoneta herrian zehar ibiliko da 10:00etatik 11:00etara.

PILOTA ▶

Probintziales bi derbi izango dira bihar eta etzi

Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri lehiatuko dira Beotibarren, seniorretan eta jubeniletan



Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri jokalariek askotan lehiatu dira. N. U.

N. URBIZU

Aste honetan eskualdean jokatuko diren probintzialesko partidak hauek izango dira: Aurrera-Saiazek ostiralean 20:30ean Beotibarren Gaztelekuko kontra izango dute; ondoren banakako jubenilen arteko derbia izango da, amezketarren kontra, alegia.

Larunbatean, 10:30etik aurrera senior mailako derbia ere izango da, Zazpi-Iturrikoen aurka. Bigarren partidari, Aurrera-Saiaz Intzakoen aurka ariko dira. Bukatzeko, se-

nior mailako bikotea Goierrikoen aurka ariko da.

Zazpi-Iturri larunbatean 17:00etan bi norgehiagoka izango ditu. Binaka nagusien 3. mailan Zumaiakoen kontra eta banaka Ilunperen aurka.

DV orneko bi partidak irabazi dituzte Aurrera-Saiazekoek. Zazpi-Iturrikoek ere irabazi zuten: hiru bikoteek 22-10 irabazi zuten. Probintziales ez dira hain ongi ibili Amezetakoak, biak galdu egin baitituzte. Aurrera-Saiazekoek, aldiz, hirutik bi irabazi dituzte eta biak, jubenilen mailakoak.

LOGOPEDIA ZERBITZUA

Ebaluazio, diagnostiko eta tratamendu logopedikoa

- Artikulazio arazoak
- Hizketa arazoak
- Hizkuntza atzerapenak
- Irakurketa-idazketa arazoak
- Irensketa ez-ohikoa

tel.: 639 24 06 54 ALEGIA

IBARRA ▶

Kapoeira ikastaroa doan larunbat eta igandean

Heldu nahiz haurrentzako saioak zuzenduko ditu Brasilgo irakasleak



Kapoeira. HITZA

M.SOROA

Asteburu honetarako doako kapoeira ikastaroa antolatuta dute Ibarako kiroldegian. Brasildik etorritako kapoeiran trebea den irakasle batek emango ditu eskolak larunbat arratsaldean eta igande goizean.

Ordutegiari dagokionez, 10 eta 14 urte bitarteko haurrek 16:30etik 18:00etara izango dute larunbateko saioa eta 09:00etatik 10:30era igandeko. 15 urteetik aurrerakoek, berriz, 18:00etatik 19:30era joan beharko dute larunbatean eta 10:30etik 12:00etara igandean. Izena emateko aldeaz aurretik deitu behar da honako telefono zenbaki honetara: 943 67 15 44.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Amezketan eraikitza berriko etxea salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela eta trastelekuarekin. Interesgarria. 637 80 60 44.
Bizikleta estatikoa. BH markako bizikleta estatikoa (automatic fitness computer). Abiadura, distantzia, denbora, kaloriak, tentsioak. 75 euro. 630 06 26 69.

LANA

Zaintzaile. Arratsaldez Tolosan haurrak zaintzeko pertsona bat behar da. 615 00 77 35.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Presoen eta iheslarien aldeko eguna hilaren 28an

Elkartasun Eguna antolatu dute, ekitaldi ugari osaturiko egitararekin



Herriko hainbat gaztek, Elkartasun Egunean parte hartzeko deia egin zieten ibartarrei herenegun emandako prentsaurrekoan. MADDI SOROA

MADDI SOROA

«Elkartasun hitza hiztegiaren begiraturik gero, zera dio: helburu bera duten lagunen artean elkarrekin aritzeko edo elkarri laguntzeko sortzen den batasuna». Definizio honekin hartu zuten hitza Josu Ozeitak herenegun, Elkartasun Egunaren inguruan eskainitako prentsaurrekoan.

Ondoren zera gogorazi zuten Elkartasun Egunaren sorreraren harira, «hitz hauen itzalean sortu zen Elkartasun Egunaren ideia, Ibarako zein Euskal Herri osoko preso eta iheslariak Euskal Herriari erakutsi dioten elkartasun amai-gabea ikusita, guk beraiei ere elkartasuna adierazteko».

Jon Ijurkok, berriz, Elkartasun Egunaren zergatia hipzide hartuta, «gaur, hemen, mezu garbi baten pean bildu gara, euskal preso eta iheslariak etxera, bai, etxera diogu eta bi-

zirik» hitzekin hasi zuten prentsaurrekoa. Jarraian, «pasa den astean albiste on baten inguruan bildu ginen Ibarako plazan gure zazpi lagun behin-behineko askatasuna ospatzeko baina ez dugu ahazten sumario horretan dagoen Gari laguna ere. Aupa Gari eta laster arte!» adierazi zuten Ijurkok.

Hala, prentsaurrekoarekin ibartarrei «dei zabal bat» egin nahi diela adierazi zuten Ijurkok prentsaurrekoan batu ziren gazteen izenean, hilaren 28an Ibarako plazan berriro ere biltzeko. Oraingo honetan, ordea, «gure preso eta iheslariari erakusteko beraiekin gaudela eta ez ditugula sekula bakarrik utziko; egunero borrokarako prest gaudela beraien askatasuna lortu eta Euskal Herriko itxaropena irabazi arte».

Ondoren, gaur egun espetxe politikaren inguruko gogoeta egin zuten Ijurkok: «zoritzarrez, pasa den urteik hiru preso hil dira kartzela barruan espetxe politika honen ondorioz Kotto, Igor eta Kabu. Hau guztia nahikoa ez balitz espetxe politikak azken hilabeteetan izan duen aldaketa zoritzarrez txarrera izan da».

Legarean arabera aske egon beharko luketen presoak ere gogorazi zituen, «badira ia 170 euskal preso politiko legearen arabera libre egon beharko luketenak, eta batzuk zigor osoa beteta izanda ere kartze-

EGITARAU ▶

URRIAK 28 (LARUNBATA)

10:00. Diana eta suziri jaurtiketa.

11:00. Haurrentzako jolasak plazan.

11:30. Herriko harategiek eskainitako hamaiketako plazan.

12:30. Herri Kirolak plazan, Ibarra Orendainen aurka.

14:00. Bazkaria, Xepela, Sendi Ekintza eta Deportiba elkarteetan. (bartelak aurrez erosi behar dira ohiko tabernetan).

17:30. Ibarako dantzarien saioa plazan.

19:00. Manifestazioa plazatik Euskal preso eta iheslariak etxera lelopean. Ondoren, ekitaldia plazan.

20:00. Fermin Balentzia bakarlarria plazan.

22:30. Kontzertua Gaztebean: Izeba Pilarren ilobak eta Skamatxin.

Egun osoan zehar. EHNA tramitatze aukera udaltxean eta herriko presoei postalak bidaltzeko txokoa.

lan jarraitzen dute Parot doktrina izenez ezagutzen den araudiaren ondorioz» baieztatuz.

Espetxe politikarekin jarraituz, «zigorraren hiru laurdenak beteta duten 170 euskal presoak ere kartzelan mantentzen dituzte eta argi gelditzen da guzti honekin xantaia egitea besterik ez dutela bilatzen. Azken kasu honetan, Eider, Ekaitz eta Mindek aske egon beharko lukete baldin eta espetxe politikaren legea beteko balute» gogorazi zuten ibartarrak.

Komunikatua irakurtzez amaitu aurretik, «euskal preso politikoen kontrako neurriak soka luze bat» direla eta «soka hori lehen bait lehen moztu behar dela» helarazi zuten Ijurkok. Baita «gaur egun prozesuaz hitz egiten jaikitzen gara eta prozesuaz hitz egiten ohe-

ratzen gara, baina bitarte horretan ia 700 presoek egunero jasotzen dute estatuak ezarritako biolentzia» adierazi ere.

Prentsaurrekoarekin amaitu aurretik Elkartasun Egunerako deia egin zuten Josu Ozeitak: «herriko elkarte, talde, gremio nahiz norbanako zabalak lan egingo du egun honetan eta guk, festa eta aldarrikapena uztartuz Elkartasun Egunean parte hartzera gonbidatu nahi ditugu ibartarrak. Deidarra zabalduz urte guztian elkartasuna praktikatzera egunero baitago horretarako parada».

Bestalde, esker hitzak izan zituen; «aurten, aldeaz aurretik eskertu nahi diegu egun hau posible egingo duten guztiei: musikariak, dantzariak, harategiak, Gaztetxea, kirolariak eta bertan parte hartuko duten herritar guztiak».

GIZARTEA ▶

Onddoa: gutizia desiratua

Azken urte hauetan udazkena iristen denean mendiko txokoak erabat masifikatzen dira; aparkatzeko lekuren bat topatzea ere ez da erraza izaten



Onddoak salgai, Tolosako larunbateroko azokan. PABLO ALBERDI

XABIER LASKIBAR ▶ ARANZADIKO MIKOLOGI ARLOAREN SORTZAILEA

«Pozoinkei buruz hitz egin beharra dago, jendeari beldurra sartzeko»

Xabier Laskibar Aranzadi Zientzia elkarteko mikologia arloaren sortzaileetako bat izan zen. Natura orokorrean maite du, baina gaur onddoen inguruan solastu gara.

Erietxetik pozoinketa bat izan ondoren askotan deitzen dizute. Zer laguntza ematen diezu medikuei?

Norbait pozoinduta joaten bada medikuek lehendabizi niri abisatzen didate, gaixoak zein perretxiko hartu duen jakin nahi izaten baitute, batetik bestera pozoina ezberdina izaten delako.

Nola jakiten duzu zein onddo jan duten?

Zakarrak baldin badauzkate orduan erraza da, baina ez baldin badauzkate liburu batzuekin joaten naiz eta galderak egiten dizkiot gaixoari: non jaso dituen, basoan edo larreetan izan diren...

Erreakzioa ere esanguratsua izaten al da?

Perretxikoaren arabera 6 ordu-



BERRIA

tatik behera edo gora hasten da erreakzioa. 6 orduetatik behera bada orduan ez da larria. **Ohiko erreakzioak nolakoak dira?**

Beherakoa, gorakoa eta beste batzuetan izerdi fuertea izaten dute. Beste batzuk haluzinazioak izaten dituzte. Erreakzio ezberdinak daude.

Dagoen onddorik garrantzitsuena Amanita Faloides da. Heriotza eragin dezake. Horrelako kasu asko izan al dituzu?

Azken 10 urtetan 10 bat kasu izan dira. Oso azkar hartzen bada, 5 egun ospitalean pasa eta etxera joan zaitezke. Uzten bada, gibela txikitu egiten du eta transplantatea egin behar izaten da.

Asko jan behar al da heriotza eragiteko?

Ez. Onddo bakar batekin, garaiz hartzen ez bada, nahikoa da. Askok gibel horiak direla uste dute, kolorearekin antza ikaragarria baitute.

Pozoinketa bat gertatzen denean jendeari ez zaio honen inguruan hitz egitea gustatzen. Gauza hauek ixilik mantentzea zer iruditzen zaizu?

Jendeari beldurra sartu behar zaio eta horretarako horren inguruan hitz egin behar da. Eta onddoak biltzeko orduan, kontuz ibili. ◀

GOMENDIOAK ▶

Bat. Saskia erabili. Plastikozko poltsekin onddoak azkarrago izurratzen dira. Inguruko lurra ez mugitu.

Bi. Ez izorratu bildu gabeko perretxikurik, haien funtzio ekologikoa oso garrantzitsua baita.

Hiru. Jateko aleren bat jaso aurretik ziurta zaitez espezie hori ongi ezagutzen duzula

Lau. Perretxiko batzuk labanarekin biltzen dira hobeto, beste batzuk, berriz, eskuz.

tan beste hainbat gauza topatzen ditugu maiz: paperak, latak, plastikoak... Xabier Azkarate onddo zalearen ustez «jendeak maiz itxituak hondatu eta alanbradak hausteaz gain, mendia zikina uzten du».

Izan ere, zertara joaten gara mendira? Edo onddoekin zer egin nahi izaten dugu? Onddo batzuk ezaugarriak badituzte ere (minbiziaren edo diabetesaren aurka, adibidez) otordu ederrak egiteko erabiltzen dituzte jende askok, izozgailuan sartu eta neguan zehar ateratzeko. Oparitzea ere ohikoa izaten da, familiari, lagunei, auzokoei... beste hainbatek ordea, saldu egiten dituzte. Eta zentzu horretan, udazkeneko gutizia saltzeko produktu batean bihurtzen da. Garai batean jendeak handik eta hemendik atera behar izaten zuen bizimodua, baina orain gauzak aldatu dira, eta onddo saltzen dabilena normalean lanean ari da. «Bada 200 kilotik gora onddo bildu duen jendea. Hori gutzia gero saldu egiten dute», dio Azkaratek. «Kopuru handiak hartuta onddo lekuak hondatu egiten dira, leku berean onddoak kantitate handian hartuz gero, desagertu egin baitaitezke». Gainera, basoa babestu nahi badugu, ontto gazteegiak, zaharrak eta harrek jandakoak biltzea ere ez da komeni.

Onddoak biltzen dituen jendetzaren ondorioz hauen inguruan beti egondu den mitoak gaur ere ez du zentzurik. Garai batean norberak topatutako onddo lekuak sakratuak izaten ziren, baina onddoen adituaren ustez norberaren txokoak ere bukatu dira. «Udaberriko zizarekin behar bada txoko horiek mantendu egiten dira, baina onddoekin ez. Hainbeste jende sartzen da, leku gutzietaraino iristen dela». Gainera gipuzkoarrak ez dira Nafarroara mugitzen diren bakarrak. Leitzarrak ere, beste nafar asko bezala, hainbat lekutara joaten dira: Aralar, Beruete, Ultzama eta Irati dira, beste txoko baten artean, aukeratuak.

NAIARA GARZIA

Nafarroan baso gehiago daudenez, milaka pertsona izaten dira gure basoetara hurbiltzen direnak. Azken urte hauetan, gainera, kopuru horrek gora egin du eta Aranzadi elkartearen ustez «hau gehiegizkoa da». Horrela, «onddoek jendearengan sortzen duen irrika eta naturaren arteko oreka hori mantentzea oso zaila da». Elkartetik napaurrek zerbait egingo dutela argi daukate, izan ere, Leitzar inguruko mendiek asteburuetan Kontxa hondartza dirudite, udaran jendez gainezka dagoenean. Ez da harrizkoa igande batean Berueten 130 kotxe inguru aparkatuta egotea. Gaur egun asteburuetan gure mendietara igotzeak ez du merzei, jendez gainezka egoten baitira eta Leitzar edo inguruko mendietan (Aralarren, adibidez) aparkatzea ere ez da lan erraza izaten.

Leitzar askok, beraz, nahia go dute astean zehar Leitzalarrera joan, eta mendiaren la-saitasunean onddoak bildu. Onddo biltzeak ez du berez inolako misteriorik, topatu ondoren kontuz hartu, garbitu eta saskira botatzea besterik ez da egin behar, baina onddo lekue-

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 19a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunari Buruzko Nazioarteko Kongresua. Gaur, Leidor aretoan: 10:15-11:00: Inaugurazio hitzaldia, *Estrategia globala nutrizioan, jarduera fisikoan eta osasunean*; 11:30-12:15: *Jarduera fisikoak eta kirolak osasunarekin duten loturaren oinarri zientifikoak* hitzaldia; 12:15-13:00: *Osasun arloko langileen zeregina jarduera fisikoaren sustapenean*; 13:00-13:45: *Sindrome metabolikoa: egungo bizimoduaren ondorioa* hitzaldia; 16:00-17:30: *Haur obesitatearen prebentzioa, eta jarduera fisikoarekin eta kirolarekin duen lotura* tailerra; 17:30-19:00: *Herritarren ohiturak aldatzeko moduak: herritar eta erkidego aktiboagoak nola sortu* tailerra. Kultur Etxean: 16:00-17:30: *Pertsona ezinduek gizarteratzea jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez* tailerra; 17:30-19:00: *Jarduera fisiko pertsona zaharren bizi-kalitatea ontzeko bide* tailerra. Izen emateko edota informazio gehiagorako, www.kirolarte.net/congreso. **Tolosa.** San Esteban auzoko XIX. Kutur Astearen baitan, 19:00etan IV. Patata Tortila Lehiaketa, eta 22:30ean *Trainspotting* antzezlan Juanlu Escuderoren eskutik. **Tolosa.** Zeligueta-Urroz mendi irteera antolatatu du Alpino Uzturrek iganderako. Itzaga mendia igoko dute. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 5. 943 65 27 89). **Tolosa.** Merkataritza Federakuntzak antolatuta, ostiralera arte, eskaparatismo ikastaroa, Kultur Etxean, 14:15ean. **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketako sarrerak salgai TEEK (CIT) Emeterio Arrese kalean 2 duen bulegoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Etxebeste, JM. Germikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Elkar trukea artearen bidez


TOLOSA ▶ Sükrü Karakus turkiarrak antolatuta, 'Destambul kolorek, soinuk, zaporek' jardunaldiak izango dira gaurtik azaroaren 17ra arte



Sükrü Karakus turkiarra *Topaketa* erakusketako margolan baten ondoan, Leidor aretoan. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Turkiarra jaiotzez. Bertan 20 urte bizi ondoren, Tolosan eman ditu azken urteak. Artista da Sükrü Karakus, ez jaiotzez, lana egitearen ondorioz baizik, izan ere, berak dioen bezala, «artista egin egiten da». Bere lanetan, berriz, «Turkia eta Tolosaren arteko kolore nahasketak ageri dira, bi kulturetatik jaso dudanan ondorioz». Kultur artekotasan hori herritarrei erakustea da, hain zuzen ere, artista turkiarrak antolatuta eta Fronton jate-txeak, Tolosako Udalak, Artelekuk eta Leidorrek lagundu dituen *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien xedea.



100 margolan daude ikusgai Leidor aretoan. IÑIGO TERRADILLOS

'DESTAMBUL' ▶

ERAKUSKETA

Gaurtik. Sükrü Karakus-ek eginiko 100 margolanez osaturiko *Topaketa* erakusketaren inaugurazioa gaur, Leidorren. Azaroaren 12a bitarte izango da ikusgai. Fronton jatebexan ere egongo dira azaroaren 17ra arte.

TURKIAR AFARIA

Hilaren 26an. 21:00etan Fronton jatebexan izango da; txartelak Frontonen edota Saikin tabernan, 20 eurotan.

ZINEMA

Gaur. Zine forumaren baitan, *Cruzando el puente, los sonidos de Estambul* filma, 21:30ean, Leidor aretoan. **Azaroaren 5ean.** *Lejano* filma, 19:30ean, Leidorren.

Gaur hasi eta azaroaren 17ra arte luzatuko dira jardunaldiak, izan ere, ordurarte egongo da Frontonen eta azaroaren 12ra arte Leidorren, Karakusen 100 margolanez osaturiko *Topaketa* erakusketa. Inaugurazio irekia gaur egingo dute Leidor aretoan 20:00etatik 21:00etara *luncharekin*. Erakusketaz gain, bi film ere izango dira ikusgai jardunaldien baitan: gaur 21:30ean, *Topaketa* erakusketaren inaugurazioaren ostean, *Cruzando el puente, los sonidos de Estambul*, eta azaroaren 5ean, 19:30ean, *Lejano*. *Destambul* osatzeko, hilaren 26an, Turkiar afaria prestatuko dute Fronton jatebexan, Roberto Ruizek eta Sükrü Karakusek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Olatz Otezabal.
Zorionak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...